




GEHIGARRI BEREZIA

Saritutako lanak

Ipuinak

1. saria: Praxku eta Margarita. *Iñaki Iturain*
2. saria: Bizitza, triste eta ederra. *Garazi Urretabizkaia*
3. saria: Idatzi=sinatu. *Itziar Irastorza*

Olerkiak / Bertsoak

1. saria: Urtzen doaz enarak. *Marisa Arruabarrena*
 2. saria: Salto egin eta arnasa hartu. *Eñaut Martí*
 3. saria: Maitale baten beharra. *Andoni Fernández*
- Accessita: Ezberdina, eta zer? *Garazi Urretabizkaia*
- Accessita: Agur eta ongietorri. *Ekain Zubizarreta*

Praxku eta Margarita

Iñaki Iturain

Maddi kafea hartzen ari da etxeko sukaldean, bazkal berritan. Mobila joka hasi zaio atetik zintzilik daukan poltsaren barrutik. SMS bat da, Nikolasek bidalia: “e-mail bat jarriñat, irekizan”. Ordenagailua piztu eta, spam zaborrari kasu egin gabe, lagunaren mezura jo du zuzenean:

Aupa, neska, zer, lanean hasi al gera? Aurten zer maila tokatu zain? Iaz bezela, lau urtekoak?

Hi, kafea hartzera joango al gaitun? Gonbidatzen haut, zemuz bostetan hondartzako hoteleko tabernan?

Joan aurretik, hala ere, etxeko lana jarriko diñat: irakurri zan elkarrizketa hori, horretaz hitz egin behar dinagu eta. Hortxe ditun elkarrizketatuaren fitxa eta elkarrizketa bera:

Fitxa zenbakia: 8

Elkarrizketatua: Praxku Legarreta

Adina: 93 urte (1919-07-18an jaioa)

Baserria: Urdindegi

Non: Urdindegiko sukaldean

Noiz: 2012-09-1, arratsaldeko bostetan

—Ze in ber dekela? azterketa bat euskeraren gañen? Bai, gaur egun baziok amaika olako, danak alperrikan; euskeraz geo ta okerro iteyek oaingo gaztek. Ikastola jun bai, earki alperrik, etzekiyat nik ze ikastuen an. Gutxitan jaisten nauk errira, baña jutenaizenen amorratzen eotenauk, umek jostatzen ta gurasok bere arten dana erderaz, geo ume oyeke ze inberdue pixkat koskortzeianen? Ba, gurasok iteuena. Galtza luzek jazteakin batea utzikoyek oyeke euskera, umen gauza dalakon. Arraunlarik e erderaz iteyek eta, geyenak. Au dek marka au! Garai bateko arraunlayak berriz jayoko baliake eliyeke sinisture ingo, iya danak kastillanoz.

—Zer moduz doa baserria?

—Beida, emen kontua zeok ugari, eta betikua, pixkorrenak aurrea, makiña bat alper sartu dek Gobierno Baskon. Etezkiyat ze iteuen, baserritarrak geo ta okerro gabiltzak, ezin allatu, ni re gobernun sartuko nauk, beyak saldu ta Vitoria. Alde earreko bizimodua!

—Nola ikusten dezu Euskal Herria?

—Lotsagabia zeok asko emen. Franco omen uen gaiztua. Ua gaiztua? Eztiat esango dana ondo intzunikan, ua re aman semia uan. Baña ordun beintzat ezuan oaingo saltza ta zikiña, lapurreta besteik etzeok-eta bazter guztitan. Eta

lapurreta baño okerragua, gizonak akatzen, etzekiyat nik zeñen izenen eta zertako. Abertzalek omen dituk. Oyeke abertzalek! Dana txikitu besteik itealdue, ba? Ni lendakari jarriko banitzake earki konponduko nixkike problemak: lanen jarriko nixkike danak. Eztola lanikan? Billatuko nikek, basua garbitzea, eta geo arbolak aldatzea. Ikusiko uake nola bukatuko litzayeken txikiziotako gogua.

—Ez zaitut oso baikor ikusten.

—Baikor... ara, nik etzekiyat zeatik etorri dan au dana. Leno pakia uan emen ta lana re bai, in nai zunantzako. Gerra ondorengo urtek txarrak izan ituan. Guk ez genin goseik pasa, baserrin beti izatek zerbait. Kaleko jendiak bai eta arrantzalek e bai. Baña año zinkuentatik aurrea emen eztiyau goseik ezautu, lana iñezkeo iñok etzin goseik pasatzen, baño lana galanki inda e!

—Baina orain hobeto biziko gera, ba, ez?

—Obeto? Bein gerra bukatuta, emen lana ta pakia izan genin, oi ezautu diyau guk iya oain arte, demokraziyak eka-rrri xixkiguk oainguak. Erlijiyua re aztu in diyau-ta. Eliza gazteik etzek iñor jutun. Jaungoikuai beldurra galtziak ori zekarrek: nai dunak nai duna iteik, dana libre, eta alkarrentzako errespetoik batez. Franco gaixtua? Obe bai berriz etorriko balitzake!

Maddi harrituta geratu da; egia esan, ez zuen espero horrelakorik. Lo kuluxka egiteko zuen asmoa alde batera utzita, berehala erantzun dio Nikolasi, beste SMS bat jarritz: “OK, 5etan hotelean”.

Etzetik atera aurretik, hala ere, 25 urteko neskak denbora hartu du pixka bat apaintzeko. Kalera irtetekotan dela, bihozkada bat izan du, eta gelara itzulita ordenagailua piztu du berriz. Berak egindako elkarrizketen artean bilatzen hasi da. “Hementxe dago, ea hau zer iruditzen zaion Nikolasi!”. Inprimatu egin du. Paperak hartu eta, ohi bezala, bizikletan, hondartzarako bidea hartu du. Kanpinaren ondoko bizikletentzako aparkalekura joanda, hantxe ikusi du Nikolasena ere.

—Aupa, Nikolas.

—Kaixo, neska, zer moduz eskolan?

—Iaz baino hobeto, oso neska-mutil majoak tokatu zaizkit. Gustura nago.

—Zer hartu nahi dun?

—Te bat, berdea.

Nikolas altxatu eta barrara joan da tea eskatzera, Maddi begira geratu zaio, eta pentsatu du bere artean: “Orain ere ederrean sartu nau honek, eskolan haurrek ez didate lanik ematen batere eta zer da eta, ez aspertzeko, baserri baserri aiton-amona zaharrak elkarrizketatzen jarri ez nau, ba!”. Lan amateurak ordu dezente kentzen dizkio, baina ez dago damututa, “Nikolas mutil jatorra da eta, gainera, asko ari naiz ikasten berarekin lan honetan.”

Biak dabilta gustura azken hilabeteotan. Baserri baserri. Edadeko jendea elkarrizketatzen, ahotsa grabatzeko tramankuluak hartu eta baserri batetik bestera. Lehenengoak biek batera egin zituzten, orain bakoitza bere aldetik dabil. Tarteka elkartu egiten dira, lana bideratzeko. Dagoeneko berretsia dute aurretik susmo hutsa zutena: zaharrek askoz euskara hobea dute gazteek baino. Aldea sekulakoa da. Horren zortzi frogak daukate, bien artean zortzi baserritan egindako elkarrizketetan herriko baserritar zaharrek erakutsi duten hitz jario dotore eta aberatsa. Oraingoz zortzi baserritan izan dira: Itxaspe, Aldape, Etxeberri, Aizperro, Gorrienea, Andu, Usarbe eta Urdindegín.

Azken egunak elkarrizketatuen hitzak transkribatzen eman dituzte. Aurretik eztabaida mamitsuak izan dituzte irizpideak adosten: h-a jarri behar ote duten, hitzak zenbateraino pilatu edo berezitu behar dituzten... Azkenean, bat egin dute, *feeling* ona daukate. Fakultatetik dute elkarren ezagutza, Gasteizen euskal filologia ikasi zutenetik. Geroztik elkarrekin egin dituzte zenbait gauza: uda garaian eskola partikularrak eman, Errioxan mahatsa biltzen ibili, ingelesa gehixeago lantzeko Liverpooletan egindako hiru hilabeteo egonaldia...

Harreman ona dute. Herriko jendeak uste du elkarrekin dabiltzala, bikotea osatzen dutela. Baina bi gazteon iritzia bestelakoa da: harreman libre dute, ez daude uztarri batek lotuta, larrean libre dabilta arkumetxoak dira, oraindik gazte eta aske; ia egunero elkarrekin dabilta baina.

Nikolas Maddiren aurrean eseri da, te-kikarak mahai gainean utzi ondoren.

—Maddi, irakurri al dun elkarrizketa?

Neskari erantzuteko betarik eman gabe, jarraitu egin du:

—Han, baserrian, berarekin hizketan jardun nintzeanean, gizon atsegina iruditu zitzaidan Praxku. Hitzun ona den, grazia handikoa, hizkuntza primeran dara-

bilena. Eta daukan adina kontuan hartuta, sekulako bizi-tasuna din, harrigarria. Gustura egon nindunan berarekin. Baina orain kezka bat nagusitu zaidan nire baitan: ez nitxeonan erreparatu ere egin aitona Praxkuk zer esan zuen, nolakoak bota zizkidan. Orduan baka-rrik erreparatu nionan nola hitz egiten zuen, belarriak eduki nizkinan nolako euskara ederra zerabilen entzuteko jarrita, horretara bakarrik.

—Eta, zein da ba zure kezka?

—Zein den, zein izango da, ba! Nola da posible gure artean bizi den gizon batek horrelakoak esatea? Hobe litzatekeela Franco berriz etorriko balitz, alajaina!

Aurreko egunetan, testua transkribatzeari ekin eta edukiaz jabetzen hasi denean, Nikolasi aldatzen hasi zaio Praxku zaharraren nortasunaz zuen ikuspegia.

—Hara, Nikolas, Praxku horrek 93 urte ditu, gerra Francorekin egingo zuen noski; eta, gainera, esan dituen gauza askotan arrazoi faltarik ez du gure aitona zahar-rak.

Maddiren erantzunak harridura ekarri dio Nikolasi. Pixka batean isilik geratu dira biak, tea dastatzearekin batera neskak esandakoa hausnartzen bezala. Baina Maddiren hitzek sosegua ere ekarri diote Nikolasi, lagundu egin diote aitona harekin bakea egiten, jatorra eta atsegina iruditu zitzaion agurearekin berradiskidetzen hasteko.

Horretan ari dela, Maddiren hitzak entzun ditu berriz.

—Nik ere badaukat, ba, zuri erakusteko moduko elkarrizketa bat, hau ere beharbada harrigarria egingo zaizu.

Maddik elkarrizketaren fitxa teknikoak erakutsi dio lagunari:

Fitxa zenbakia: 5

Elkarrizketatua: Margarita Yurramendi

Adina: 73 urte (1939-04-14)

Baserria: Gorrienea

Non: Gorrieneako etxaurrean

Noiz: 2012-08-14, goizeko hamarretan

—*Ta nik ze kontatzia nai dezu ba? Nigandikan eztezu kontu onikan aituko. Gu galtzaillek egokitu gea mundu onta, galtzeko jayua. Gerra galdu in gendun, orduartekok e galdu intzitu gure aurreko euskaldunak, eta oaingua re galtzen ai dia oaingo gaztek: il ez diguena kartzelan dao, eo bestela izkutun. Berko! Eta txarrena da emen eztola atarramenduik, Euskal Gobernun ditugun agintari oyekin jai deu!*

—Zer, ba, ez al dituzte gauzak ondo egiten?

—*Ayek bere zilborrea besteik eztue beiratzan, patrikak ear-ki gizendu eta bere partidukok jarri danak bueltan. Erri libre*

baten bagiñake bezelaxe jokatzene, dirua irabazi beste zeregiñik ez baluke bezela. Berdin zaye gaiña Madrillen zeñek aintzen dun, ezkerra dan edo eskubiya, kontua agintea daukanakin ondo eotia. Ta bitarten presok kartzelan usteltzen. Batzuk ogei urte damazkiye eta oaindikan ateatzeko esperantzipe.

–Baina laster konponduko dira gauzak, ezta?

–Laister, eztakit pa nik, guria re an do, zuk bakizu, ua ezta zu baño askoz zaarro izango, oitamabi urte izangoitu arek ta dauneako sei badamazki..., eta sekula baño urrutiyo dao, oain Zeuta eaman due. Len itxetik batenbat jutezan illen bein eo, oain juntzaite!, zeñek eman ber digu guri ortako ber dana. Ta guk ze indeu oi mezi izateko. Iya urtebete bada azkenekoz ikusi nunetik, ez junda obe, okerro etortzen naiz. Terroristak emen dia. Terroristak? ta beak zer dia oyek?

–Zuk gerra ezagutu al zenuen?

–Ez, ni treintainueven jayua naiz, gerra bukatu zan urten. Gure aita zana ibili zan gerran, gudari. Zazpi urte enki zuen kartzelan gerra bukatu ta geo re, ta geo batetik bestea ibili zuen, gerran botatako zubik altxatzen. Nik enun ezautu amar urte bete nitun arte. Ta geo re etzuen paken uzten. Nik amalau urte nitula iltzan gizajo ua. Eztakit tifusa izantzan eo biotzen zaukan pena. Baño txarrena gure ama zanak izantzun. Arena bai izantzala latza, bost ume itxen eta jatekoik iya batez.

–Hala ere, aurrera atera zineten.

–Makiña lan inda. Alare ez gintuen paken uzten. Nik e bi urte luze eman nitun kartzelan, oaindikan eztakit zergatik. Andikan ateratare burla besteik eztigue egin gure denbora guztin. Nik bakit zertzan eozertako permisua ber eta guardia zibilen kuartelea jun ta an aitu ber izatenitunak: ‘qué, todavía no has aprendido a hablar en cristiano?’ eta danak parrez, erderaz ondo ite enulako. Kanpotikan etorritakok guria ikasi ez ta guk ayena ikasi ber, derrior. Kanpokua nausi. Eta guk ze kulpa daukagu ba, ze indeu ba?

–Noizbait konponduko ziren, ba, zuen arazoak?

–Konpondu..., gure semiak 14 urte zitula ezautu zun lenengo aldiz kuartelillua, eskolako pareta batei arrika jardun omentzian ta kuadrilla osua ara eamantzituen, sei laun, egur bana eman eta alkar jotzen jarri zituen, batek ez bazun bere laguna jotzen ordun bea astintzen zuen indar guztiyakin, azkenen lagun danak alkar joka jarri arte, masalletan malkuak zituztela. Ordun ikasi zun guriak zer dan gorrotua. Itxen ez geniyon eakutsi, an ikasi zun, eta geo soldadu juntzanen, ataokerro. Oain don lekun izantzan, Zeutan, kalabozon emantzun iya soldaduska osua, informe txarrak zitun lendik, eta ola beti. Gutzako eztao demokraziyik. Oi esateko beldurrik eztet nik, naidezun lekun jarri, alperrik izangoa baña.

Nikolasek testua irakurtzen bukatu duenean, Maddiri begiratu dio, begietara. Neska begirada horren zain zegoen. Denbora pixka bat eman dute horrela, isilik.

Mutilak apurtu du isilunea.

–Baina nola da posible adin bertsuko bi pertsonak horren pentsaera desberdina izatea, baten baserritik besteaenera bostehun metro ere ez daude eta!

Galiziarrek egiten omen duten bezala, galderarekin erantzun dio neskak.

–Aditu al duzu inoiz zer den yin-yang?

–Tokitara joan haiz, neska, eta zertara dator hori orain?

–Niri horixe etorri zait gogora lehen, Praxkuren hitzak irakurri ditudanean: yin-yangean zuria eta beltza bezala, elkarren osagarriak dira bi aiton-amonen hitzak, bi muturretakoak dira, itxura batean elkarren oso desberdinak; baina azken batean errealitate bera azaltzen digute, bi ikuspegi. Gauak eta egunak biek osatzen dute 24 orduko zikloa. Eta gure herriaren historia osatzeko ere biak behar ditugu: Margarita eta Praxku bezalakoen hitz zintzoak, benetakoak. Horrelaxe osatuko dugu puzzlea.

–Hara, ba, agian arrazoi dun. Interesgarria izan liteke Praxku eta Margarita hizketan jartzea, biak batera, elkarrekin, elkarri aditzen.

Azken bi egunetan Nikolasek ez du Maddi ikusi. Pirinioetara joan da lagun batekin, Gabarnie aldetik Tallon mendia igotzera. Nikolasen motxilan baina, arropa eta jatekoekin batera, bi elkarrizketen paperak ere joan dira mendira. Honezkero hiru aldiz irakurriak ditu biak. Iltzatuta dabilzkio gogoan, haiekin bueltaka dabil denbora guztian. Elkarrizketok neurri batean aldarazi egin diote interesgunea Nikolasi. Horrenbeste denbora adinekoek esaten zutena nola esaten zuten erreparatzen pasatu eta gero, orain zer dioten interesatzen zaio, filologiaren ordeaz orain historia ere aztertzeke gogoan sortu zaio.

Beste zerbait ere aldatzen hasita dago baina, Nikolasen barruan. Mendian gora doala, zaharren elkarrizketetako hitzekin batera, Maddirenak ere bueltaka ibili zaizkio mutilari. Gauean, kanpin-denda txikian sartuta, Pirinioetako irail hasierako haize freskoaren ufaden doinuak lagunduta, lokartu aurreko azken irudia Maddiren aurpegia izan du, haren begi berdeak.

Goizean goiz, esnatu denean, artean fresko dauka gauak ekarri dion amets gozoa: Maddirekin jolasean zebilen hondartzako olatuen artean saltaka, biran inor

ez zutela. Neska hurbildu, lepotik heldu eta esan zion:

—Jin-jan, euskaraz esanda: etorri eta jan (egingo zaitut).

Eta hori esanez, neskak hurbilarazi egin zuen bere-gana eta bi gazteen ezpaineak talka egin zuten aurreneko aldiz.

Ondo gosaldutik ondoren, mendiaren malda gogor bezain ederrari ekin diote lagunak. Eguerdia baino lehen iritsi dira Tallon mendiaren tontorrera. Gain hartan eserita, Euskal Herrira begira dagoela hartu du erabakia Nikolasak, buruan baserriak eta hondartza nahasian dabilzkiolarik:

—Ditxosozko gerra hartan zer gertatu zen ikertu behar diagu. Baserrietan egin beharreko elkarrizketak bukatuta, ondoren herrian, kaskoan, egin behar ditugunetan ekingo zioagu lan horri. Premia handikoa duk, orain egin beharrekoa. Geroko gerotan geratu gabe, bihar bertan kafetxo bat hartzera gonbidatuko diat Maddi hotelean.

Yin-yangarena osatzen hasita dago, jin-janarena ere abian da.

Bizitza, triste eta ederra

Garazi Urretabizkaia

Igandea

230 euro. Beren baitan hamaika abentura batzen dituzten 230 euro ziztrin. Horixe da aste gogor baten ostean lortu duen guztia. Gauza geroz eta okerrago dagoela pentsatuz, diruari mespretxuz begiratu eta billeteak eskumuturrean duen ileko goma beltz batez bildu ostean, jada denboraren poderioz horitua dagoen gutun-azal batean sartu ditu. “Laster lortuko dut behar dudan guztia aurrezte” bere buruari esan eta logelako mesanotxeko azken tiraderan gorde du bere etorkizuneko ametsak gordetzen dituen gutun-azala.

Komunetik beharrezko gauzak hartu ostean, logela zaharreko atearen atzeko ispiluaren aurrean eseri da. Aurpegian zehar daraman eta ia bere benetako izatea kamuflatzen duen makillaje kapa lodia kentzen duen bitartean, begietatik braustaka, negar anpuluek jario amaigabea hasi dute. Begietako errimelaren ondorioz aurpegia tinta beltzez estaltzen zaiolarik, bere burua egun hain modan dauden talde urbano horietako partaide ikusi du. Ispiluari begira, *gotiko* baten itxura duela otu zaio, eta burutapen horrek arrazoi jakinik gabe hasi den malko erreka gerarazi eta irribarre ñimiño bat zizelkatu dio.

Une batez talde bateko kide izateko burutapena eman dioten marka beltzak aurpegitik kendu ostean, hainbeste maite duen Mafaldaren pijama jantzi eta laster utzi beharko duen ohean sartu da. Bere gaueroko errezoak egin, eta gero eta argi gutxiago egiten duen lanparako argia itzali du. Goizeko 6ak dira.

Astelehena

Hamarrak puntuan jo dio iratzargailuak, Shakiraren ahots leunez. “Ciega, sordomuda” abestiak beti ekarri izan dizkio oroitzapen onak. Umore onez jaikiarazten du. Eta gaur, bereziki, astelehena delako. Jende arrunt gehienaren aurka, berak gogoko ditu astelehenak. Lanera ez joatea erabakitzen duelako. Beno, ez bere betiko lanera, behintzat. Astelehenero goizeko 10etan ematen ditu bere lehen pausoak. Jantzi ostean, logela utzi eta harrerarako bidea hartzen du, ostatuko langileari logelak eta ostatua bera garbitzen laguntzeko. Lan horri, eta bazkarien ostean platerak garbitzen laguntzeari

esker, bere logela ilunagatik ordaintzen duen prezioa ez da 50 eurotara iristen. Madril erdian egoteko ezin gehiago eskatu! Zorteduna kontsideratzen da bertan lan egiteko aukera izateagatik. Ostatuko jabearen laguntza beharrezkoa eta ezinbestekoa izan baitu aurrera atera ahal izateko.

“Buenos días le dé Diosito, señora Carmen” batekin agurtu du bere ia lagun bihurtu den ostatuko jabea. 64 urte ingururekin, guztiz bat etortzen da ostatuak duen itxurarekin. Eraikin zaharkitu bat da, 15 gela txiki eta ilunek osatua. Pareten kolore garai batean zuria guztiz horitua dago hezetasunaren eraginez. Baina ostatuak ilunetik duen guztia du *señora Carmenek* alaitasunetik. Bertaratzen den jendeari egiten dion harrerak argi uzten du emakume on eta maitagarria dela, beti laguntzeko prest dagoen horietakoa. Lehen begiraturtik izan zuten sekulako konplizitatea eta berehala ohartu zen Carmen bere apopiloa ez zela momentu erraz batetik pasatzen ari. Hirugarren egunetik aurrera bere eskuetan zuen laguntza osoa eskaini zion. Berak bihotza ireki eta bere egoera zein zen hitzez hitz deskribatu zion. Hortik aurrera etorri zen ostatuan laguntza ematearen truke ia ezer ordaindu behar ez izatea, eta baita aipatzea beharrezko ez den beste laguntza asko ere. Bertan aurkitu zuen bere ezpala; bertan, azken hilabeteen hain beltz ikusten zuen errealitatean beharrezko zuen argi puntua. Eta ez zuen laguntza inongo momentuan ukatu.

Gela guztiak garbitu ostean kalera atera da buelta bat ematera. Egun eguzkitsua bada ere, hezurretaraino sartzen den neguko haize finak eta kaletik doazenen positibismoak segituan nazkatu dute. Ostatuko gela iluneko lau pareten artera itzultzea erabaki du, nobela on batean galtzeak kalean noraezean ibiltzeak baino motibazio gehiago emango diola pentsatuz. Esan eta egin. Duela bi hilabetetik bere etxea den ostatuko 7. gelara sartu, Millenium trilogia ospetsuaren lehen liburua hartu eta bertan murgildu da. Ohartzera, gaueko 12ak iritsi dira. “Bihar beste egun bat izango da!” pentsatu, kostata liburua itxi eta oheratu egin da. Istorioko abenturei bueltaka harrapatu dio loak, pixkanaka.

Asteartea

Lanera joaten den ia guztietan bezala, eguna ohean pasa du, gero datorkionari buruz espekulatzen. Gehiengtan asmatzen ez badu ere, hamaika istorio eta egoera ezberdin irudikatzea gustatzen zaio, edozeren aurrean prest egon ahal izateko.

Gaueko 3ak dira eta gaurko gaua ondo joan denez, goiz antzera erretiratzea erabaki du. Atetik haurtxo baten irribarrea gogorarazten duen keinu batekin sartu da logelara. Gustura dago. Lana gogorra den arren, batzue-tan esperantzarako tarte bat ere irekitzen diolako. Gaur, bi astetan hirugarren aldiz, berriz ere berarekin topatu da. Haren autora igo zen lehen unetik jakin zuen berarekin ezberdina izango zela, ez zuela oso une txarra pasa beharrik izango. Eta asmatu zuen. 35 bat urte izango zituen mutilak. Lehen unetik argi utzi zion ez zuela inolako asmorik, soilik hitz egiteko baten bat behar zuela eta desesperazioak sortutako frustrazioak eraginda, bertan bukatu zuela. Ordubeteko elkarrizketa sakon zein entretenigarri baten ostean, ostatura gerturatu eta 50 euro eman zizkion, berarekin oso gustura egon zela adieraziz. Ez zitzaion sekula horrelako ezer gertatu eta, esker-rak eman ostean, berriz elkar ikusteko ametsarekin erretiratu zen, irribarrez. Eta ametsa egia bihurtu da gau honetan, ostera. Baina hirugarren aldi hau ezberdina izan da. Edo bera behintzat, ez da berdina sentitu. Betiko solasaldiaren ostean, mutilak eskutik heldu eta muxu ezti bat eman dio masailean. Horrek gorputzeko ile guz-tiak tentetu dizkio. Telefono zenbaki bat luzatu dio gero, nahi duenean deitzeko esanez. Behar duela. Berarekin geroz eta gusturago dagoela. Segituan gau horretan seku-la baino gusturago lo egingo duela antzeman du...

Asteazkena

Inoiz baino lehenago esnatu da eta, zergatik ez, inoiz baino indar gehiagorekin. Egia esan, duen ofiziorako zorte dezentet izaten ari dela onartu beharra dauka. Bezpe-rako muxu eztiari bueltaka hasi eta inkontzienteki, magia hutsez bezala, bihotza azkartu eta tximeletaz josirik duela dirudien sabela ia bere tokitik atera beharrean sumatu du. Automatikoki, ia inertziaz, sekulako irribarrea marraztu zaio aurpegian. “Bazen garaia” pentsatu du berekiko. *Señora Carmen*i egunonak ematera jaitsi eta kafe bero baten aurrean istorio guztia kontatu dio, bere sentipenik barrukoenak adieraztera iritsiz. Eta bere buru-arekin harrituta geratu da. Ez zen aspaldian hain ilu-sionaturik egon. Urteak ziren jendearekiko (eta, batez

ere, mutilekiko) interesa galdu zuenetik. Baina honekin zerbait berezia gertatzen zaio. Ez daki asko berari buruz; baina, aldi berean, ondo ezagutzen duen sentsazioa dau-ka. Hiru egun daramatza haren beldur, arazo eta nahi-gabeak entzuten eta horrek bere buruarekiko nolabaiteko konfiantza ematen dio. Azken batean, sekula ez da nor-bait berarekin horrenbeste ireki. Bai, eguna pasatzen du 35 urte dituen eta Hector izenez erantzuten duen izaki miresgarri harekin pentsatzen. 15 urteko nerabe bat bezala sentitzen da telefono mugikorra daraman papera eskuan hartu eta zenbakia markatu ostean botoi berdeari eman ala ez erabakitzen duen bitartean. Urduri dago; urduri, baina pozik. Badakielako berak nahi duenean berriz ikusiko duela. Kontziente delako egoera bere eskue-tan dagoela. Eta horrek indarra ematen dio. Indarra eta poza. Poza eta konfiantza. Konfiantza eta segurtasuna. Eta aprobetxatzea erabaki du.

Eternitatea izan litezkeen bi ordu luze pasa ostean, azkenean deitzera ausartu da. Ezaguna den pertsona ororekin derrigorrezko bilakatzen den “Kaixo! Zer mo-duz?” protokoloaren ostean, zuzenean deiaren funtsera jo dute. “Bihar gauean gera gaitezke. Baina ez beti beza-la; gau osorako, esan nahi dut” esan du mutilak. Berak lana egin behar duela gogorarazi zion, diruaren behar-ra daukala bere ametsak bete ahal izateko. Mutilak lasai egoteko, dena bere kontu joango dela eta, behar izanez gero, dirua ere utziko diola. Kexa batzuen ostean eta asko pentsatu ondoren, berak baietz esan dio. Azken batean ezin dio bere printze urdinarekin gau oso bat pasatzeko aukerari alde egiten utzi...

Horrela, bada, telefonoa eskegi eta eguna laino batean igaro du. Ezer egin gabe, konkretuki ezertan pentsatu gabe; baina, une oro, buruari bueltaka. Arraro sentitzen da. Pozik, emozioz beterik; baina, aldi berean, urduri, beldurti. Eta egun oso bat falta da oraindik une handirako. Buruari bake pixka bat emate aldera, dutxa bero bat hartzea erabakitzen du. Ondoren jantzi, aurpegia pintatu eta kalera atera da. Gauak zer ekarriko dion oso argi izan gabe...

Osteguna

Eguerdi aldera esnatu da, gauerako zitarako falta zaizkion orduak segituan kalkulatu. Denbora soberan dauka. Mesanotxean bart gauean irabazitako 40 euroak ikusi ditu, oraindik gutun-azalean sartzeke. Ohetik altxa, dirua hartu eta aurreko egun guztietan bezala hiruga-rren tiradera ireki eta gaueko altxorra gainontzeko diru-

arekin batu du. “Laster iritsiko da eguna, oso laster” Pentsatu eta irribarre berezia eginez, tiradera kolpe batez itxi du. Komunetik derrigorrezko buelta egin ostean, berriz ere ohean sartu da iluntzeak bere mantua bota arte. Eta bat-batean...

Bakardadearen isiltasunean bildutako oin hotsak. Iru-di iheskor bat. Orratz erako takoiak. Inguruan, urrun baina gertu, jazz musika. Ile beltza. Hankak gurutzatzerakoan ikasle gona baten karraska leuna, txikia, ia antze-manezina. Ispiluaren aurrean esertzen da. Oraindik ez du aurpegia margotzea bukatu. Erlaxatu nahian hasperen egiten du, laster ondoko hautsontzian bukatuko duen zigarroari azken atxikia eman ostean. Burua altxatu eta bere islari irribarre egiten dio. Ederra jarri beharra dauka gaueko zitarako. Ohi baino ederrago. Ezpainak gorri margotzen ditu. Berez sentsuala suertatzen den kolore beltz batek bere begirada gailentzen du. Itxura misteriosu bat ematen dio, iluntasun behe-laino batek harapatuko balu bezala. Interesgarria. Jazz musikak berean segitzen du. Bere titi txikiak nabarmentzen ditu eskote limurtzaileak. Urduri dago. Bere zainetatik sedukzioaren grinak dario. Generazioz generazio ikusi eta ikasi duen sedukzio nahiak. Badaki nola mugitu aldakak alde batera eta bestera leuntasun eta fintasun osoz. Nola egin negar, nola izan pertxenta, nola kliskatu begiak. Badaki nola sinestarazi mutil bati ez dela erabilia izaten ari, baizik eta bera dela egoera kontrolatzen duena... Ofizioak eta afizioak guzti hori lortu dute

Irribarre lotsati bat entseatzen du, gorputza lurrinez estaltzen duen bitartean. Aspaldian izan duen lehen zita. Lehen mutila. Urduri etxetik ateratzen da. Lehenengo afaltzera joango direla iruditu zaio. Jatetxe garestiren batera. Gero, agian, diskotekara. Baina bere burua harago doa. Ez daki auto batean, hotel batean, ostatuan ala bere etxean gertatuko den. Agian, ez da gertatu ere egingo. Baina, egunero egin arren, une horrek beldurra ematen dio. Ezberdina delako. Benetan gustuko duelako... Eta dena ondo ateratzea nahi du...

Ostirala

Iluntzeko zazpiak dira eta oraindik izarak gainetik kendu ezinean dabil. Berandu oheratu zen eta are beranduago lortu zuen loak hartzea. Laster lanera joan behar duela argi duen arren, pixka batean ohean pentsakor geratzea erabaki du. Atzoko gaua nola deskribatu... Bakarra izan zen. Magikoa. Ederra. Imajina zezakeena baino askoz ere hobea. Bederatzieta pasa zen bere bila “La

esperanza” izena izanagatik esperantzatik gutxi transmititzen duen ostatuaren paretik. Bere Alfa Romeo urdinean sartu eta hiriko jatetxerik ospetsuenetako batera eraman zuen. Aspaldi ez zuen horrela afaldu... Ardo kopatik ardo kopara, bien arteko konplizitatea gero eta gehiagora zihoan. Beren begiradek guztia esaten zuten. Gustuko zuten elkar. Gustuko baino gehiago. Batak bestearekiko zituzten zalantzak argitu eta nork bere bizitza kontatzeari ekin zioten. Itxuraz guztiz ezberdinak izanagatik, gauza asko zituzten komunean. Postrea laguntzeko eskatutako xanpain botilan murgildurik zeudela, zerbitzaria gerturatu zitzaien, laster itxi behar zutela esatera. Bakarrik zeuden jada jatetxean. Entretenituegi zeuden ohartzeko ere. Handik atera eta hiriburu kale erdi beteetatik barrena (gogoratu, osteguna zen) paseotxo bat eman zuten. Taberna brasildar batean pare bat caipirinha edan ostean, Hectorrek gau osoan bien buruetan bueltaka zebilen galdera egin zuen: “Nonbaitera joango gara?” Berak baietz erantzun zion. Beldur zela; baina, aldi berean, gogo izugarria zeukala. Horrela, bada, mutilaren etxeko maindire artean galdu ziren ia egunsentia iritsi arte. Batak bestearenganako sentipenak sekretua bailiran xuxurlatu zituzten izarapean, elkar laztanduz, sekula baino gusturago zeudela adieraziz, batera denbora gehiago igaro behar zutela zin eginez; funtsean, elkar maitatuz. Eta zoragarria izan zen. Idilikoa.

Baina gaua erreparasatu ostean, iritsi da lanera joateko ordua. Beno, ostirala da. Goizean, ostatura itzultzean, bihar berriz ikusiko garela esan dugu. Beraz, gaurkoa pasa eta berriz ere libre sentituko naiz haren beso artean. Ilusioz beterik nago. Gogotsu bion artean sortu den zera honi bidea ireki eta aurrera egiteko. Beharra nuen. Beharra dugu.

Baina berak oraindik ez daki agian une hori sekula ez dela iritsiko...

Egunero bezala, galarik onenak jantzita eta makillajea ondo emanda, atera da jada bere bigarren etxebizitza bihurtu den Valverde kalera. Bere eguneroko txokora bidean, lankideak agurtu eta bide ertzean pausatu denean, zigarro bat piztu du. Egia esan, geroz eta zailagoa izaten da bezero onak lortzea. Lan honetan hasi zenean, dena errazagoa zen. Ez zegoen hainbeste konpetentziarik. Baina gaur egun egoera aldatu egin da. Egia esan, zorte handia du. Egunero geratzen zaio baten bat eta beti eramaten du diru apur bat etxera. Ez da gutxi.

Bat-batean, auto zuri bat geratu zaio aurrean. Gizonezko bat da, 55 urte ingurukoa. Daramatzen traje eta gorbata txukunari erreparatuz gero, gizon diruduna dirudi. Itxura onekoa. Gaztelera arraro batean esandako “Kaixo, zer moduz? Igoko zara?” baten ostean, ez du pentsatzeko denbora gehiegi izan. Ohartzerako, larruzko eserlekuak dituen Audiaren barruan topatu da, tonu lasai eta sosegatuan hitz egiten dion gizonarekin elkarriketan. Nora doazen galdetu dio. Gizonak, isiltzeko, ikusiko duela. “Toki ederren batera eramango nau” pentsatu du oharkabean. Baina bere pentsamenduak ez dira toki onetik joango...

Mandoaren klik hotsarekin batera ireki da gutxienez hiru auto gehiago gordetzen dituen garajeko atea. Bera izan da autotik irteten lehena. Edukazio osoz bere aldera etorri eta atea ireki dio, “Baje usted, señorita” batez lagundurik. “Ze galaia! Horrelako gizonak desagertuak zirela uste nuen!”. Gerritik heldu eta gelara eramandu. Ohartzerako, ohera bota du, ezer esan gabe, ezer galdetu gabe, nolabaiteko basatasunez. Bularrak ukitzen hasi zaio, bortizki, esku batekin mesanotxeko tiraderatik zerbait ateratzen zuen bitartean. Bat-batean, ohartu gabe buelta eman eta bere gainean eseri da. Bere gorputz uherrarekin ezinezkoa du gizon indartsuaren aurka ezer egitea. Konturatzerako, metalezko klik bat entzun du, eta gero beste bat. Bere eskumuturrak ohe bazterrari esposa batzuen bidez lotuta daudela ohartu da. “Izan ezazu konfiantza nigan” entzun du. Bat-batean takoidun zapatak eta gona kendu dizkio. “Beraz, sexu anala gogoko duzu, ez?” Berak orroa izan nahi duen intziri bat bota du. Berehala, kuleroak ahoan sentitu ditu. Zerbait ipini dio orkatiletan, hankan banandu eta guztiz babesgabe utziz. Logelatik oinez dabilela sumatzen du; baina, beldurraren eraginez, begietatik behera doazen malkoek ez diote ezer ikusten uzten. Minutu batzuk igaro dira. Ia ezin du arnasarik hartu. Bat-batean sekulako mina sentitu du, gizonak, ezer esan gabe uzkie objektu metaliko bat sartu dionean.

Goizeko laurak iritsi arte ez dio berriz ere arropa jantzten utzi. Ordura arte mota guztietako abusuak eta irainak jasan behar izan ditu. Arropak hartu eta, pixkanaka, herrenka, irteerantz jo du. Gizona hortxe dago, atean zain, dutxatu berri eta txukun jantzita, ezer gertatu izan ez balitz bezala. “La llevaré a casa, señorita” esan dio. Berak buruarekin ezetz egin dio, bakarrik joango dela. Gizonak datorren ostiralean berriz bueltatzeko eskatu dio, zintzoa izateko, ez esateko inori bertan ger-

tatutakoa. 300 euro sartu dizkio kasik hautsirik duen bularretakoan. Atea ireki eta desagertu egin da...

Larunbata

Hortxe dago, ohean etzanda. Gaueko zortziak dira eta ez da bederatzietan duen zitara azalduko. Ez zita horretara ez beste batera. Bart, etxera bidean, bere lagun zahar batekin geldialdi bat egin zuen. Dirua soberan zuen nahi adina material erosteko. Etxe garesti hartan ohe nazkagarri hari loturik zegoen bitartean bere bizitza pasa zitzaion begi aurretik. Nostalgiaz oroitu zuen haurtzaroa. Beti izan zuen oso maitatua Cusco jaioterria, Peruko Erroma txikia. Txikitatik izan zen haur zoriontsu bat, berezia, abenturazalea. Baina bere zoriontasuna familiara eta bere buruarengan zuen konfiantzara mugatzen zen. Hiriko jendearen artean ez zen oso maitatua, beti izan zelako ezberdina. Beraz, logikoa zen bezala, abentura grina hura are handiago egin zitzaion adinean aurrera joan ahala. Ezin zuen han jarraitu, ito egiten zen. Lurralde berriak esploratzeko nahia beti izan zuen barnean, baina ordura arte ez zuen pausua emateko adorerik izan. Familiaren laguntza osoarekin, bi aldiz pentsatu gabe, aukeratu zuen Madril ametsetakotako etorkizun baten eszenatoki gisa. Egia esan, iritsi eta gauzak ez zitzaizkion hain gaizki joan. Segituan topatu zuen lana etxe batean. Han bizi zen; han lan egiten zuen. Ez zuen soldata nahikoa irabazten bere familia osoa eta bera asebetetzeko; baina, pixkanaka, dirua kopuru txiki-etan bidali arren, bere familiartekoak gustura zeuden. Egia esan, bazekien lanerako hartu zuen familiak bere sekretua jakingo balu, bidali egingo zutela. Baina ez zuen ematen sekula asmatuko zutenik. Bera, behintzat, ez zegoen kontatzeko prest. Dena zihoan ondo, bi urte zeramatzan ametsetakotako hirian ametsik bete gabe, baina etorkizun oparoa aurreikusten zuen, esperantzaz betea.

Egun batean krisia iritsi zen arte. Familiaren negozio propioa diru sarrerarik gabe geratu zen. Eta hor hasi zen drama. Bat-batean zorrak, hipotekak, estresak, paperak goitik, behetik. Maileguak. Engainuak. Deiak. Dei gehiago. Presioa. Iluna. Negarra. Ezin ordaindua. Bere kaleratzea. Eta familiarena. Etxearen kentzea. Eta familiako kide guztientzat, kalea. Kale gorria. Gertuko familiartekoen etxeetan barreiatu ziren familia osatzen zuten sei kideak. Bera, ordea, kale gorrian geratu zen. Diru apurrarekin. Lanik gabe. Duintasunik gabe. Baina orduan galdutzat zuen duintasuna are gehiago galdu zuen takoidun zapatak eta gona motza jantzi eta Valverde

kalera atera zen egunean. Ez zuen sekula prostituzioan sartzerik espero. Baina egoera zena zen.

Beti izan zen barrera bat bere sexualitatea. Baina kalean zegoen bitartean, ez zion garrantzi gehiegi ematen. Jendea horren bila irteten zen. Organo maskulinoak zituen arren, bera emakume sentitzen zen. Ez zekien bart gaueko gizonak horregatik egin zion egin ziona ala, besterik gabe, horrelakoa zen eta neska gehiagori egiten zien. Zekien bakarra zen nahikoa izan zela hori bera porru eginda uzteko. Eta amorrua sentitu zuen. Amorru handia. Ez zuelako bere herrialdera itzultzeko adina dirurik. Ez zuelako horrelako egoerarik berriz jasan nahi. Galduta sentitu zen. Minduta. Itota. Lur jota. Ezer tarako balio ez balu bezala. Eta bat-batean Hectorren

irudia etorri zitzaion burura. Irribarre dramatiko bat marraztu zitzaion. Sentimendu kontrajarriak. Ilusioen desesperazioa. Minaren esperantza. “Bizitza krudela da” pentsatu zuen. Mutilarekin gustura zegoen, zen bezala maite baitzuen. Baina bart gauekoak gehiegi ukitu zion. Hilabeteak zeramatzan zoriontsu izan gabe, dirua aurreztu eta bere jaioterrira itzultzeko ilusio soilarekin. Baina oraindik ez zuen nahikoa diru. Negar batean ostaturira iritsi, lagunari erositako pilula potea hartu eta paper batean zerbait idatzi ostean ohean etzan zen. Ez zen sekula gehiago esnatuko.

Gaueko hamarretan aurkitu zuten ohean etzanda. Mesanotxean nota bat utzi zuen: Eguneko paradoxa: Bizitza triste eta ederra.

Idatzi=sinatu

Itziar Irastorza

Bost edo sei urte izango genituen. *Hermana Blanca* izenez ezagutu genuen. Blusa txuria, gona eta jertse grisak, media zurixkak, zapata beltzak, buruan zapi zuria eta lepoan zintzilik gurutzedun kate bat. Ez ginen asko konturatu haren lanak zenbaterainoko garrantzia izango zuen gure bizitzan. Gure hatz motz eta potoloekin arkatzari trakets eusten genion. Zenbat saiakera, zenbat pazientzia gurekin. Rubio koadernoetan. Idatzi eta irakurri. Batzuek errazago, besteok gehiago kostata, baina lortu zuen. Denok ikasi genuen. Ikasi bagenuen, ikasi genuen.

Oinarrizko Hezkuntza Orokorra bukatuta (edo EGB; ezagunagoa, agian), mojatxoak agurtu genituen 14 urterekin. Ikasketak hiriburuan jarraitzeko unea zen. Kapitalera. Donostiara, alegia. Salto handia denontzat. Eta une garrantzitsua iritsi zen. Lehenengo aldiz, *Hermana Blanca*k hainbeste kostata irakatsitakoa, ofizial egingo nuen. Nortasun Agiri Nazionala ateratzeko momentua. Badaezpada ere. Donostiara baikindoazen. Behatz marka, argazki eta guzti. Horrekin dena errazago balitz bezala. Emakume batek, kopeta beltzarekin, esan zidan: “Firma aquí, chavala”. Sinatu nuen. Boligrafoarekin. Ez nekien oso ondo zertarako, baina sinatu nuen. Hilabete gerora karnetaren bila pasatzeko agindu zidan, listo egongo zela. Eta, jasotzeko egunean, berriro: “Vuelve a firmar aquí”. Alegia, jaso nuela. Sinatu nuen.

18 urte bete eta denon ametsa egia bihurtzeko unea. Adinez nagusi. Baina ez nahastu. Bozkatzeko aukerarena ez da denon ametsa; ez zen, behintzat, nirea. Nirea, kotxea gidatzeko baimena ateratzea! Uztaila osoa autoeskolan testak bete eta testak bete. Azterketa eguna iritsi zen. Eskerrak idazten bagenekien, nerbioak kontrolatzen, behintzat, asko ez genekien-eta. *Hermana Blanca*k hori ez zigun irakatsi. Lehenengoan azterketa gainditu! Eta, iraila iritsitakoan, praktikak. Horretarako ez dago idazten jakin beharrik, abilidadea behar da. Berriro azterketa. Txandan, hirutik hirugarrena. Goiz guztia kotxean sartuta bueltaka. Donostian, hiriburuan. Ataskoak, semaforo guztiak beti gorrian, itxaron, anbulantzia, aparkatu, berandutzen ari da... Bukatu da. Hogeita bost minutu bakarrik. Aztertzailea ere amaitzeko desi-

ratzen nonbait. Ni bezala. “Ondo, neska, gainditu den!”. Toma! Berriro bizitzako beste une garrantzitsu bat: argazkia eta “Firma aquí”. Sinatu nuen.

19 urterekin Donostiako ikasketak amaitu genituen. Bost urtez kapitalera bueltaka ibili ondoren, hainbat barre, negar, istilu, inbidia, azterketa, nerbio, irakasle petral, ikasle min, lagun min, bikote, euskara, matematika, kontabilitate, informatika, ingeles, etxeko lanen ondoren... idazkaritzan: “Hemen behean sinatu behar duzu”. Administrazioan Teknikari Espezialista. Hitzak bai, dotoreak. Espezialista, espezialista... Hori ere sinatu nuen.

Lanean hasteko ordua. Espezialistak omen ginen. Eskerrak. Elkarrizketa gizon batekin. Halako ordutegia, honelako lanak, praktiketako kontratua lehenengo urtean, gero geroakoak, horrenbeste diru... interesatzen? Galdetzea ere! Ez ginen, ba, espezialistak? Donostian, behintzat, hori esan ziguten. Nigatik, ados. “Tienes que firmar las tres copias del contrato”. Sinatu nuen. Idazten ikasi baikenuen.

21 urte. Mutil laguna. Edo senargaia. Edo nobioa. Alegia, ibiltzen ginela. Gidatzeko baimenak bagenituen, kotxeak ere bai, biok lanean. Eta beti kotxean ezin ibili, ba! Pisu bat erostea ere. Non. Berdin du. Nolakoa, berdin du. Denak garesti, zaharrak eta berriak. Ikusitako lehenengoa ez, bigarrena bai. Etxea eta hipoteka, biak batera etorri ziren eskaintzan, *dosporuno*. Ederki, ona erosketa. Berriro Donostian; aire egokituz hornitutako bulego batean, zazpi pertsona. Saltzaileak bi, erostunak bi, notarioa, bankukoa eta aita. Badaezpada ere. Dena irakurri ondoren, notarioak serio-serio: “Tienen ustedes que firmar todas las hojas: tanto la Hipoteca como las Escrituras de Compra-Venta”. Hori saioa, hori. Sinatu eta sinatu. Sinatu eta sinatu. Idazten ikasi genuela, ba. Ordainetan, oraingoan, giltza batzuk. Desberdina, behintzat.

32 urte. Krisia. Gure lantokira aspaldi iritsita zegoe-na, nahiz eta espezialistak izan. Berriro gizonarekin elkarrizketa. Oraingoan, kontuak argi. Hogei egun lana eging-dako urte bakoitzeko indemnizazioa eta ordutegi librea betirako. Pena eta negargura. Egundak biontzat.

Langabezia. “Nos juntaremos en Donostia con la abogada para firmar el finiquito, que serán tres copias”. Bai, ba, kontratuarekin egin genuen bezala, hiru aldiz. Berririo Donostian. Sinatu nuen. Ordura arte, gogorik gabe botatako sinadura bakarrak. Batzuetan, idazten ez jakitea, hobe.

33 urte. “Udalak udarako lanpostuak eskaintzen ditu”. Aurkeztea ere. Zertarako. Espezialista hintzen, baina ez horretarako. Probatzeagatik. Animatu hadi. Garbitzaile eta udaltzain laguntzaile azterketak. Emaizak: udaltzain laguntzaile. Telefono deia: Interesatuta al zaude? Erantzuna: Non eta noiz sinatu behar da? Hemen oso garrantzitsua zen sinatzen jakitea. Dena sinatuta. Gordailua, abisuak, isunak, pleguak... Kuriosoena: autopista azpiko aparkalekuan holandar autoa zuen bikote bati, euskaraz inprimatutako eta gaztelaniaz idatzitako isuna ingelesez adieraziz, kobratu eta biok sinatuta utzi ge-

nuena. Harrapa ezan hori! *Hermana Blancak* euskara eta ingelesa ez zekizkien, baino idazten gazteleraz irakatsi zidan. Holandan egon ote zen? Ez nion inoiz galdetu.

Udalaren oharra: “Irailaren bukaera arte aurkez daitezke lanak aurtengo Euskaraz Gazte literatur lehia- ketan”. Inoiz ez haiz aurkeztu. Urtero Karkaran irakurtzen ditun irabazitakoen idatziak. Oraingoan denbora badun. Ez dun, ba, esan idazten ikasi huela *Hermana Blanca- rekin?* Benga. Orion bizi haiz, 16 urte baino gehiago dauzkan, euskaraz izan behar din, luzera eta gaia librea, gertutasuna... Aitona Patxik esaten zinan euskaldunaren hitzarekin edozein lekutara joatea bazegoela. Baina badaez- pada ere, hark Francisco izenez sinatzen zinan. *Hermana Blancak* irakatsita ez, baina norbaitekin idazten ikasi zinan hark ere. Bukatu dun. Sinatu. Hau ez dun sinatu- ta utzi behar eta! Irakurri ezan!

Urtzen doaz enarak

Marisa Arruabarrena

Urtzen doaz enarak
urtzen hegaka
eguzkiaren bila
ekaitza ez dute maite.

Urtzen doaz enarak
urtzen
urruntzen hegaka
maitearen bila
non ote?

Urtzen doaz enarak
urtzen
itsaso bilakatzen.

Salto egin eta arnasa hartu

Eñaut Martí

Hipotekak,
semeen eskolak,
emazte ohiaren pentsioa,
aurrera egin beharraren presioa...
galdua duzu aspaldian bizitzeko gogoia,
joan zaizu begietako desioa.
Kateak estu dituzu,
lepoan,
gorputz osoan,
nonahi;
kateak estu dituzu.

Zenbat gauza uste,
zenbat gauza espero zenituen.
Luze itxaron zenien
inoiz agertu ez ziren lagun horiei.

Eta negua dator berriz ere
neguaren atzetik,
eguzkia zirudien mendi artetik,
baina ez ziren beste laino beltz batzuk besterik.
Ez da erraza.
Zer ostiatarako engainatu!
Oso zaila da
dramazko istorio bat bihurtu den zure bizitzan
aurrerantz jarraitzea,
minez elkarren artean itsatsirik dauden orrialdeak
pasatzea,
duintasun apurra gordetzea.

Arnastea ere, larri zaizu.
Zabor gehiegi irentsi ote duzu?

Berriz ere, eskua mesanotxera,
9mm-ko revolverraren segurtasunaren bila,
oxigeno izpirik edukiko al du kobrezko bala abilak?

Galderak eta galderak,
argirik gabeko zurrunbiloak,
inoiz akabatuko al zaitu
inoiz amaituko ez den dekadentziak?

Zotinak,
dangerosak diren sukaldeko labanak;
azkarregi pentsatuz,
gutxiegi arrazoituz.
Malkoak,
gainezka egin du urtegiak,
askatasun pixka bat eskaini dizu leihoak.
Ezinak eta saminak,
amorruek eta suminak;

Salto egin eta arnasa hartu,
nahikoa irentsi duzu.

Maitale baten beharra

Andoni Fernández

1

Bikotekidea dudan arren,
ezin berdina sentitu,
maitasun mota desberdin bat da.
Zuei nola esplikatu!
Eguna oso luze joaten zait
ezin badut bisitatu,
ta bera gabe inolaz ere,
ezingo nitzan bizitu.

2

Gau ederrenak pasatzen ditut
berarekin ametsetan,
inoiz ez dugu elkar gozatu
ilunaren babesean.
Egunez soilik gera gaitezke
argia dagoenean,
beti horrela izan da eta
ezin ba egon penetan.

3

Gure jolasak egoten dira,
pasio handiz beteta,
lehenengo igurtziarekin
gorputz osoa bustita
zirrara bereziak sentituz,
bere gainean jarrita,
haren barrura sartzea bezain
zoriontasunikan ezta

4

Elkar ikusi behar badugu,
goiz-goizetikan urduri,
desio onak izanagatik
haserretzen gera sarri.
Laztan goxoak bihurtzen dira,
batzuetan beldurgarri,
momentu latzak pasatua naiz
ez diot opa inori.

5

Elkar ezagutzen hasi ginen
nire herriko hondartzan,
marea beheran egoten ziren
hainbat putzu zuloetan,
geroztik asko ibilia naiz
bere olatu artean,
itsasoa dut nik maitalea
surfean nabilenean.

6

Errespetuz maitatu behar da,
jainkoa izan liteke,
guztia ematen badu ere
guztia kendu dezake.
Noizbait itsasoan galtzen banaiz
lasai gelditu zaitezte,
nire egunak haren ondoan
bukatu nahi nituzke.

Ezberdina, eta zer?

Garazi Urretabizkaia

1

Oroitzen nabil laurogeita biko
arratsalde eder gozoa,
hondartza aldean lasai nengoen
itsasorantz nuen soa
Bat-batean han ur magalean
silueta bat lausoa,
dama eder bat hauteman eta
zuzendu nuen pausoa...
Ohartzerako bere bihurtu zen
nire bihotz apal osoa.

2

Bere ondoan pausatu nintzen
gorputz ximel dardaratiz,
begietara behatu nion
irrifar txiki lotsatiz.
Berak “Zer moduz?” galdetu zidan
elkarriketa bat hasiz
nik “hainbestean” erantzun eta
barre egin zuen berriz!
Eta eskutik heldu ninduen
pentsatu gabe bi aldiz.

3

Begiak itxiz sentitu nuen
bere ezpainen herstura
eta lehenengoz dastatu nuen
bular eztien lilura...
Hitz lizun edo fereka leun
ezerk ez zuen ardura!
Klimaxeraino iritsi ginen
bidaiatuaz zerura...
40 aste beranduago
bera iritsi zen mundura

4

Udako bero ukitu hura
geratua zen atzean,
baina maitasun istorioak
jarraitzen zuen berean.
Poz bat gehiago hartu genuen
medikura joatean
“Haurdun zaudete! Haurdun zaudete!”
oihuka hasi zenean
hazi berri bat ernaldua zen
gure bihotzen barnean.

5

Ilusioen kolorea ta
esperantzaren alaia,
iritsia zen euforiaren
menpe jausteko garaia!
Haurtxo txikia izango baitzen
tristura ororen amaia;
sen ezberdinek bultzaturiko
sentipenen ardagaia...
Zoritxarrean ez dira berdin
errealitate ta nahia.

6

Erditze gelan urduritasun
zantzuak ziren nagusi.
Ez nuen inoiz horrenbesteko
mediku andana ikusi.
“Aterako da, aterako da,
zuk esperantzari eutsi!”
Baina han ez zen ez irribarre,
ez negar ta ez aharrausi...
Ohartzerako istant batean
dena gainbehera zen jausi.

7

Erlojuaren tik-tak haretan
dena bihurtu zen infernu
horren ostean etorri zena
aurrez jakingo bagenu...
“Benga, eutsi! Hor aterako da”
ta azkenean zen heldu,
baina tristura ezohiko bat
barruan zitzaigun gailendu
bere irudiak nire bihotza
une batez zuen moteldu.

8

Hantxe zegoen niri begira
ume txiki oparoa.
Txinodun begi berezi haiez
irribarretsu ahoa.
Eta nik, berriz, begitan behera
malko anpulu jariora...
“Down sindromea dauka haurtxoak”
medikuaren abisoa.
Halakoetan prest al dago bat
izateko gurasoa?

9

Une hartako negar isila,
gogortasunaren zama.
Ezjakintasun baten aurrean
sortu litekeen drama;
poza, tristura, mina, negarra,
ze sentimendu andana!
Baina haurtxoak barre egin eta
argitu zitzaigun dana
orduantxe prest sentitu ginen
Izateko aita ta ama.

10

Bi urtetatik haurtzaindegira
beste haur guztien gisan
eta ordutik ibili izan da
aurreiritzien peskizan.
Ume guztiek tratatzen zuten
gauza arraroa bailitza...
baina gure Ibai beti umoretsu
ibili ohi denez bizitzan,
lagun izaten bukatzen zuten
nahiz hasieran nahi ez izan.

11

Ikastolara joan zenean
dena hobe zen berez,
irakasle bat zeukan beretzat
egokia gure ustez;
baina egoera ez zen hobetu,
txarrera joan zen, tamalez...
Ume guztiek baztertzen zuten
eta maitatu inork ez!
Hori aldatzeko lan egin gabe,
hobetu liteke nekez.

12

Entzun ditugu, besteak beste,
guraso ezjakinen kexak.
Bizi ditugu gizartearen
jokabide aldrebesak,
haur txikitxoan mespretxuak ta
diru laguntzarik ezak...
Baina gure Ibai pozik bizi da
pairatu gabe estresak.
Zoriontasuna ematen baitio
familiarren babesak.

13

Zauriak josi ahalko balira
bildutako arantzekin,
etorkizuna ikusterik balitz
esperantza faltsuekin...
Jendearen aurka zenbat endredo
zenbat borroka, zenbat min...
Baina indarra lortu behar dugu
borroka gurea egin!
Gu bizi garen artean behintzat
zoriontsu izan dedin.

14

Gure eskutan dagoen oro
nahiko genuke gauzatu
Ibairen kezka txiki bakoitza
loturetatik askatu.
Bere poz eta bere tristuren
askatasunaz gozatu!
Bere ondoan oraina eta
etorkizuna dastatu!
Ezberdin jaio izanagatik
eskubide bera baitu.

Agur eta ongietorri

Ekain Zubizarreta

Gorroto ditut:

Goizeko autobusak,
denboraren mezulari nagi.
Agurra eteten, motor hotsak.
Atzera begiratzen ez duten begi
iheskorren babesle diren leihoak.

Gorroto ditut:

Ongietorri behar luketen agurrak,
izarapean belarrira kantari,
entzun ezinezko berriak,
garunean borrokalari,
garratz bihurtuz ametsak.

Gorroto ditut:

Bakarkako borrokak.
Buruko mina kendu ezinda,
begi bustiko biharamunak.
Neguaren mezulari diren
udako arrats beroak.

Gorroto ditut:

Amaierak udan,
triste ohi dira.
Barrenak sutan,
telebistari begira,
pentsamendu oro akabatu guran.

Gorroto ditut:

Argazki eder andana,
hortz zurietan zoriona ikusgai,
hits islatuz iragana.
Esku lotuak alai,
buelta baninteke zugana!

Maite ditut:
Arrats garbiko egun epelak,
izarrei begira, ikusle.
Denboraren mezulari leial,
handitasunaren erakusle.

Txikikeriak ezabatuz,
zeruari eutsiz nagusiki.
Nire handitasunean,
sentiaraziz txiki.

Maite ditut:
Hamaika betazpi koloretsu
zeru iluna argitzen.
Lurrin berriak berritsu,
izara artean jolasten.

